

HIKAGIN

[INKESTAREN EMAITZAK 2]

[UDALERRI EUSKALDUNETAKO EGOERA]

IDOIA ETXEBERRIA, ITZIAR SAPSOOTHAM

AURKIBIDEA

HIKAGIN EGITASMOA	2
INKESTAREN EMAITZAK UDALERRI EUSKALDUNETAN	5
HITANOAREN EGOERA.....	5
TOKAREN ETA NOKAREN EGOERA	8
HITANOAREN TRANSMISIO MODUA.....	10
HITANOAREN FAMA.....	11
HITANOAREN KONTRAKO IRUZKINAK.....	12
HITANOA BIZIBERRITZEKO EKIMENAK	13
HITANOAREN ERABILERA ETA EZAGUTZA-MAILA.....	14
ERABILERA-OHITURAK: ARAUAK ERRESPETATZEN DIREN.....	17
ONDORIOAK	18
ERANSKINAK	20
ERANSKINA I	20
ERANSKINA II	23
ERANSKINA III	24
ERANSKINA IV	26
ERANSKINA V	28
ERANSKINA VI	29


HIKAGIN EGITASMOA

Hikagin egitasmoaren helburu nagusia **hitanoa biziberritzea** da, bereziki noka, euskararen normalizaziorako. Hitanoa tresna paregabea da kalean eta lagunartean erabiltzeko, hizkuntzari freskotasuna eta adierazkortasuna ematen dion hizkera informala delako. Nahiz eta ikastetxeetan euskaraz ikasi, gazte askok kalean erdarara jotzen dute bat-batekotasun, adierazkortasun eta informaltasun bila: gazte-hizkera baten bila. Euskarak berezkoa duen hizkera informala, berriz, gainbehera joan da azken hamarkadetan. Udalerrri euskaldunenetan mantendu da ondoen, eta horietan ere galduz doa. Horregatik, gure asmoa euskaldunen artean, bereziki gazteen artean, hitanoaren erabilera areagotu eta sendotzea da, hizkuntza-ohiturak aldatu eta hiztunak aktibatzea. Batetik, Euskal Herri mailako Hikagin sarea sortzen ari gara eta, bestetik, herri batzuetan ekintzak eta jarduerak egiten, hikadunak sortzeko eta aktibatzeko.

Egitasmoaren lehenengo fasean **Euskal Herri mailako inkesta** bat prestatu genuen, hitanoa bizirik dagoen herrietan egoera zein den aztertzeko. Inkestak bi atal ditu: lehenengo zatian herrian herriko hitanoari buruzko galderak datoz (herriko egoera zer nolakoa den) eta bigarrenengan hitano hiztunaren esperientzia pertsonalari buruzkoak (ezagutza-maila, nola ikasi duen, zenbat erabiltzen duen...). Bigarren zatia hitano hiztunek bakarrik bete zuten. 2022ko azaroan hasi ginen inkesta prestatzen eta abenduan zabaldu genuen. Ondoren, 2023an, jasotako erantzunen lehenengo azterketa egin genuen: *Hikagin inkestaren emaitzak*. *Hitanoaren erabileraren ikuspegi orokorra*. Azterketa hori Badihardugu euskara elkartearen [webgunean](#) kontsulta daiteke.

Guztira **4.215 erantzun** jaso genituen eta horietatik 2.674 pertsonak (% 63,4k) bigarren zatia ere bete zuten. Hitanoaren egoerari eta erabilerari buruz egindako orain arteko datu-bilketa handiena izan zen. Guztira Euskal Herriko **287 herritako erantzunak** jaso ziren (1.go mapa): Gipuzkoan 88 herritakoak, Bizkaian 87, Nafarroan 70, Iparraldean 39 eta Araban 3. Aipatzekoa da Gipuzkoako ia udalerri guztietatik jaso zela erantzunen bat. Gainera, mapan¹ ikus daitekeenez, Gipuzkoako eta Arabako udalerri euskaldun guztietatik jaso dira erantzunak; gutxien, berriz, Zuberoatik, nahiz eta han ere hitanoa bizirik egon.

1.go mapa: Herrikako partaidetza Hikagin inkestan (2023):



¹ Eranskina I: Herrikako partaidetza mapa

Inkestan jasotako informazio guztiarekin azterketa ezberdin ugari egin daitezke, baita herri batzuetako azterketak ere, haietatik jasotako erantzun kopuru handiagatik (Azkoitia, Azpeitia, Arrasate, Zarautz, Eibar...).

Inkestaren erantzunak guztiz subjektiboak dira: egoera beraren aurrean, batek bere herrian hitanoaren egoera ona dela esan dezake eta beste batek, berriz, kontrakoa. Inkestako emaitzek termometro moduan balio dute, hitanoaren inguruko ikuspegia neurtzeko.

UDALERRI EUSKALDUNAK ETA EUSKARAREN ARNASGUNEAK

Aurreko txostenean egoera orokorraren azterketa egin genuen. Azterketa hau, berriz, euskararen arnasmuneetako egoerari buruzkoa da. Gure helburu nagusienetako bat hitanoa bizirik dagoen herrietako informazioa biltzea izan da, batetik, egoera nolakoa den jakiteko eta, bestetik, hitanoa biziberritzen saiatzeko, bizirik ez dagoen tokietan zailagoa delako berreskuratzea. Horregatik, txosten honetan udalerri euskaldunetako datuei erreparatu diegu gehienbat.

Zeintzuk dira udalerri euskaldunak?

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak euskararen indizea² % 70etik gora duten herriak hartzen ditu udalerri euskaldun bezala; hau da, biztanleen % 70a euskalduna edo ia euskalduna duten herriak. Baldintza hori betetzen duten 164 udalerri daude Hego Euskal Herrian eta horietatik 101 UEMAko kide dira.

UEMAk euskaldun bezala sailkatutako **164 udalerrietako 138**atik jaso ditugu erantzunak gure inkestan. Hau da, **udalerri euskaldunen % 84tik** erantzunen bat edo beste jaso da. Erantzun guztiei erreparatuz gero, 4.203 erantzunetatik 2.585 (% 61,5) udalerri euskaldunetatik heldu dira.

UEMAk, gainera, herri euskaldunen artean **arnasmuneak** direnak eta ez direnak bereizten ditu. Arnasmuneetan euskararen erabilera hartzen da aintzat: etxeko eta kaleko erabileraren arteko batez bestekoa % 60tik gorakoa izatea.




Hala ere, UEMAk ez ditu Ipar Euskal Herriko udalerriak zerrendan sartu, herriz herriko euskararen ezagutzaren eta erabileraren datu ofizialik ez dagoelako. Horregatik, emaitzen analisiak eta mapak egiteko orduan Gaindegia (Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia) **EuskalGeo** ataleko datu espazialak erabili dira. EuskalGeo Euskal Herriko datu espazialen azpiegitura da. Nazioarteko irizpide eta estandarretan oinarrituz eraikia dago eta Euskal Herriari buruzko datu espazialak bistaratu eta eskuratu daitezke. **Lurgune euskaldunetako datuetan**, Ipar Euskal Herriko udalerriak ere aintzat hartzen dituenaz, azpiegitura hori erabili da inkestako emaitzen Euskal Herri osoko analisisa egiteko garaian.

Gaindegia zerrendaren arabera (Eranskina I), **188 dira herri euskaldunak** eta horietako **142**atik jaso dira erantzunak. Hurrengo mapan³ herri euskaldunen partaidetza irudikatu da. Hemen ere Zuberoan nabari da hutsune handiena erantzunetan; Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan, berriz, erantzun asko jaso dira herri euskaldunetatik:

² Euskararen indizea: Euskaldun kopurua + ia euskaldunak / 2

³ Eranskina II

2. mapa: Herri euskaldunen parte-hartzea Hikagin inkestan (2023):



UDALERRI EZ-EUSKALDUNAK

Inkesta udalerri euskaldunenetara zuzenduta egon arren, **udalerri ez-euskaldunetako 1.618 erantzun (% 40a) jaso dira**. Udalerrri horietan, beraz, hitanoari buruzko interesa behintzat badagoela esan daiteke. Hori dela eta, udalerri euskalduna eta ez euskalduna diren Azkoitiko eta Amorebieta-Etxanoko erantzunak erabili dira bien arteko konparaketa egiteko. Hauek aukeratzeko irizpideak honakoak izan dira:

- Erantzun gehien jaso diren lurraldeak Gipuzkoa eta Bizkaia izan dira.
- Gipuzkoan, erantzun gehien Azkoitian jaso dira (305 erantzun).
- Azkoitiak udalerri euskalduna izateko baldintza betetzen du (% 76,44a euskaldunak, 2010. urtean)
- Bizkaian, erantzun gehien Amorebieta-Etxanotik jaso dira (50 erantzun).
- Amorebieta-Etxanok ez du betetzen udalerri euskalduna izateko baldintza (% 53,22 euskaldunak, 2010. urtean)


INKESTAREN EMAITZAK UDALERRI EUSKALDUNETAN

HITANOAREN EGOERA

Inkestaren emaitzen arabera, udalerri euskaldunetako hitanoaren egoera hobea da Euskal Herri osotik jasotako erantzunen arabera baino (1.go irudia). Inkesta bete dutenen % 64k uste du bere herriko hitanoaren egoera ona edo erdipurdikoa dela, nahiz eta bigarren hori den gehien gailentzen dena. Datu orokorrak kontuan hartuta, ordea, pertzepzio hori dutenak % 44 bakarrik dira.


Euskal Herri osoko erantzunak kontuan hartuta, % 28k uste du hitanoa desagertzeko zorian dagoela, udalerri euskaldunetan baino aski gehiagok (% 12). Hala ere, aldea ez da hainbestekoa hitanoa herrian desagertuta dagoela erantzun dutenen artean. Udalerrri euskaldun batzuetan hitanoa erabat galduta dagoela erantzun dute, nahiz eta herri bereko batzuek galzorian dagoela adierazi (adibidez, Lekeition edo Ondarroan). Gipuzkoako kostaldean ez bezala, Bizkaiko kostaldeko herrietan hitanoa ez dago bizirik.

1.go irudia: Hitanoaren egoera udalerri euskaldunetan eta Euskal Herrian (2023):




Generoari erreparatuz, hitanoa gizonezkoen artean da nagusi eta % 10ek bakarrik uste du berdin egiten dela:

2. irudia: Hitanoaren erabilera generoaren arabera udalerri euskaldunetan (2023):




Erantzunen jatorriari begiratuz, (III. eta IV. Eranskinak), oro har hitanoaren egoera hobe dela udalerri euskaldunetan esan badaiteke ere, oso herri gutxitan erantzun dute euren herriko egoera ona dela.

3. mapa: Hitanoaren egoera inkestan parte hartutako herri guztien arabera (2023):




4. mapa: Hitanoaren egoera udalerri euskaldunetan (2023):




UEMAk egiten duen udalerri euskaldunen sailkapenean, arnasmune diren herrietan hitanoaren egoera ona dela uste dutenak % 25 dira, arnasmune ez diren herrietako bikoitza, hain zuzen ere. Orokorrean, egoera ona eta erdipurdikoa dela uste dutenak % 75 dira arnasmuneetan eta arnasmune ez diren udalerrietan, berriz, % 56.

3. irudia: Hitanoaren egoera arnasmune diren eta ez diren udalerri euskaldunetan (2023)



Euskararen egoera ezberdina den bi udalerriren konparaketa eginez gero (4. irudia), argi ikusten da joera guztiz kontrakoa dutela. Azkoitia udalerri euskalduna da, UEMAren irizpideen arabera, eta jasotako erantzunetatik % 68k uste du herriko hitanoaren egoera ona dela. Amorebieta-Etxanon (euskararen erabilerari dagokionez udalerri euskalduna ez dena), aldiz, % 2k bakarrik du hitanoaren egoeraren inguruko pertzepzio hori. Azkoitian, inkesta erantzun dutenen artean, hitanoaren egoeraren pertzepzioa oso ona den arren (% 5ek bakarrik uste du egoera eskasa dela edo galzorian dagoela) Amorebieta-Etxanon justu kontrakoa gertatzen da eta erantzundakoen % 96k uste du hitanoaren egoera eskasa dela edo galzorian dagoela.

4. irudia: Hitanoaren egoeraren konparaketa Azkoitian eta Amorebieta-Etxanon (2023)




TOKAREN ETA NOKAREN EGOERA

Tokaren eta nokaren egoera oso bestelakoa da udalerri euskaldunetan (5. irudia). Tokaren egoeraren balorazioa positibotik negatibora doa; hau da, gehiengoak tokaren egoera ona dela pentsatzen du, gutxiago dira erdipurdikoa dela uste dutenak eta are gutxiago eskasa dela edo galzorian dagoela uste dutenak. Nokaren kasuan, aldiz, alderantziz gertatzen da: oso gutxi dira egoera onean dagoela pentsatzen dutenak (% 7) eta erantzun gehiago jasotzen dira egoera txartzen den heinean. Gainera, % 9k noka galduta dagoela erantzun du; tokaren kasuan, inork ere ez.


Erantzun dutenen % 37k tokaren egoera ona dela dio eta % 32k erdipurdikoa (biak batuta, nahiko ona: % 69); % 22k eskasa dela dio eta % 10ek galzorian dagoela (biak batuta, egoera txarra: % 32). Nokaren kasuan, soilik % 7k dio egoera ona dela eta % 20k, berriz, erdipurdikoa dela (biak batuta, nahiko ona: % 27); nokaren egoera eskasa dela diotenak % 32 dira eta galzorian dagoela uste dutenak beste % 32 (biak batuta, egoera txarra: % 64).

5. irudia: Tokaren eta nokaren egoera udalerri euskaldunetan (2023)




Udalerri euskaldun eta ez-euskaldun banaren konparaketa egitean, aipatu berri dugun egoeraren antzekoa aurkitzen dugu. Azkoitian hitanoa bizirik dago: inkesta bete dutenen % 68k uste du tokaren egoera ona dela eta % 1ek bakarrik uste du galzorian dagoela. Amorebieta-Etxanon, ostera, guztiz kontrakoa gertatzen da: tokaren egoera ona dela uste dutenak % 2 bakarrik dira eta galzorian dagoela pentsatzen dutenak, berriz, % 58.

6. irudia: Tokaren egoeraren konparaketa Azkoitian eta Amorebieta-Etxanon (2023)



Nokarekin ere gauza bera gertatzen da (7. irudia): % 18k uste du Azkoitian nokaren egoera ona dela, baina Amorebieta-Etxanon inork ere ez. Gainera, noka galdutzat ematen du azkoitiarren % 1ek eta zornotzarren % 41ek.

7. irudia: Nokaren egoeraren konparaketa Azkoitian eta Amorebieta-Etxanon (2023)




Azkoitiko kasuan, nokaren egoeraren inguruko pertzepzioa udalerri euskaldunen batez bestekoa baino hobea da: udalerri euskaldunetan % 7k uste du nokaren egoera ona dela, eta Azkoitian, berriz, % 18k. Udalerri Euskaldunetako nokaren egoera (5. irudia) Azkoitiko grafikoarekin alderatuz gero (7. irudia), nokaren galera ez da horren nabarmena, eta grafikoak ez du joera negatibo bat jarraitzen.

HITANOAREN TRANSMISIO MODUA

Hitanoaren transmisio moduak bi dira udalerri euskaldunetan: etxean eta lagunartean edo kalean. Oso gutxi dira eskolan edo ikastaroen bitartez ikasi dutenak. Inkestan jasotako datu guztiak kontuan hartuta, Euskal Herri mailan ere joera bera mantentzen da; hau da, Euskal Herri mailako erantzun guztiak kontuan hartzen baldin badira, joera ez da aldatzen. Euskal Herri mailan ere hitanoa etxean (% 55) eta kalean (% 41) transmititzen da gehienbat.


8. irudia: Hitanoaren transmisio moduak udalerri euskaldunetan (2023)



HITANOAREN FAMA


Hitanoa herrian ondo ala gaizki ikusia dagoen jakiteko, alde batera utzi dira hitanorik erabiltzen ez den herrietako erantzunak. Hau da, jatorrizko inkestan erantzuteko lau aukera egon arren (*Ona; Ona, baina gizonezkoen artean; Fama txarra du; Ez da hitz egiten*), erantzunak irudikatzeko, lehenengo hiru erantzun-aukerak erabili dira, hitanoa egunerokotasunean erabiltzen den herrietako emaitzak islatu nahian. Udalerri euskaldunetan (9. irudia) hitanoaren erabilera ondo ikusia dago oro har (% 80), nahiz eta % 19k uste duen gizonezkoen artean bakarrik duela fama ona.

9. irudia: Hitanoaren fama udalerri euskaldunetan (2023)



Azkoitiaren eta Amorebieta-Etxanoren arteko konparaketan, lehenik eta behin aipatzekoa da Amorebieta-Etxanon hitanoa ez dela entzuten erantzun dutela inkesta bete duten herritarren % 41ek. Hori kontuan izanda, gainontzekoek fama ona duela erantzun dute, nahiz eta nahiko parekatuta dauden orokorrean fama ona duela eta soilik gizonezkoen artean duela fama ona dioten erantzunak. Azkoitian, berriz, hitanoak fama ona du, erantzun dutenen iritziz, eta % 13k bakarrik uste du gizonezkoen artean dagoela ondo ikusia.


10. irudia: Hitanoaren famaren konparaketa Azkoitian eta Amorebieta-Etxanon (2023)



HITANOAREN KONTRAKO IRUZKINAK

Hitanoaren kontrako iruzkinik entzun ote duten galdetu denean, Euskal Herri guztiko erantzunak kontuan hartuta iruzkin negatibo gutxiago jaso dira udalerri euskaldunetan baino (11. irudia). Tradizionalki hitanoa hizkuntza informala dela diote, haurrei eta animaliei hitz egiteko modua, berdinen artekoa eta inolaz ere ez adinez helduagoei edo eta klase-sozial altuagokoei egitekoa (gurasoak, aiton-amonak, osaba-izebak, medikuak, abokatuak, irakasleak...). Udalerri euskaldunetan hitanoa hobeto mantendu denez, ulergarria izan daiteke hari buruzko iruzkin negatibo gehiago entzutea ere.

11. irudia: Hitanoaren kontrako iritziak entzun dituzten biztanleak (2023)




Udalerri Euskaldunetan entzuten den hitanoaren kontrako iruzkin nagusia (12. irudia) errespetuzko hizkera ez izatearena da (% 68). Hitanoa ez dela emakumeentzat hizkera fina entzun dutenak % 18 dira eta % 12k hitanoa itsusia dela entzun du. Erantzunen artean honakoak jaso dira:

- "Kaxeroen hizkuntza" (Markina-Xemein)
- "Bastoa" (Amezketeta)
- "Ikasi ez dutenena" (Tolosa)
- "Kai-aurreko hizkuntza" (Hondarribia)
- "Herri txiki eta itxietakoa" (Segura)

Erantzunetako batean hitanoak genero bitarra markatzen duela eta generoa bereizten duela ere jaso da:

- "Ez dut oso gustuko hitanoan genero desberdinketa egotea, euskarak duen zerbait aberatsa nire ustez genero eza da. Pertsona guztiei berdin hitz egitea, inongo bereizketarik gabe generoagatik" (Zarautz)


12. irudia: Udalerri euskaldunetan hitanoaren kontra entzundako iruzkin negatibo nagusienak (2023)



HITANOA BIZIBERRITZEKO EKIMENAK

Inkesta erantzun dutenei beren herrietan hitanoa berreskuratzeko ekimenik ba al dagoen galdetu zaienean, lautik hiruk erantzun dute ezetz edo ez dakitela (13. irudia). Hau da, % 25ek bakarrik izan du hitanoa biziberritzeko ekimenen berri. Herri bereko erantzunak begiratuta, ordea, ikus daiteke herritar batzuek badutela herrian hitanoa biziberritzeko egiten diren ekimenen berri eta beste batzuek, berriz, ez. Beraz, hitanoa indartzeko egiten diren ekintzen inguruan ezjakintasun nabaria dagoela esan daiteke.

13. irudia: Hitanoa biziberritzeko ekimenen berri udalerri euskaldunetan (2023)



Erantzunak jaso diren herri guztiak kontuan izanda, 111 herritan antolatzen da hitanoa berreskuratzeko ekintzaren bat edo beste (Hikaldia, Hikalaguna, ikastaroak, materiala...) eta nabarmentzekoa da herri horietatik % 70 udalerri euskaldunak direla. Hurrengo irudian, lurralde bakoitzean zenbat herritan egin diren hitanoa bultzatzeko ekintzak azaldu nahi izan da. Ipar Euskal Herriko herriak ez dira taulan sartu, ez baitaude udalerri euskaldunen sarearen barruan.

Erantzunen arabera, Gipuzkoako herrietan antolatzen dira hitanoa biziberritzeko ekintza gehien, baina kontuan izan behar da erantzunak ere Gipuzkoatik jaso direla gehien. Hala ere, erantzunak Gipuzkoako ia herri guztietatik jaso diren arren, hitanoa bultzatzeko ekintzak 57 herritan burutzen direla jaso da. Ekimenetako 54 gainerako probintzietako herrietakoak dira: 33 Bizkaikoak eta 19 Nafarroakoak.

14. irudia: Hitanoa biziberritzeko ekimenak egiten dituzten udalerri euskaldunak eta ez-euskaldunak (2023)


	Udalerri euskaldunak	Besteak	Guztira
Araba	1	1	2
Gipuzkoa	40	17	57
Bizkaia	24	17	33
Nafarroa	12	7	19
Lapurdi	0	2	2
Zuberoa	0	1	1
Nafarroa Beherea	0	0	0
	77	45	114

HITANOAREN ERABILERA ETA EZAGUTZA-MAILA

Inkesta bi zatitan banatuta dago eta bigarrenak hitano-erabiltzaileak bakarrik hartzen ditu kontuan. Bigarren zati hori % 64k erantzun du; beraz, inkesta bete dutenen erdiak baino gehiagok hitanoa erabiltzen du. Udalerrri Euskaldunetara begira jarritz gero, hitanoaren erabilera-maila % 73koa da eta herritarrek sarri edo batzuetan erabiltzen dute egunerokotasunean (16. irudia).


Udalerrri euskaldunetatik jasotako erantzunei erreparatuz, inkesta bete dutenen % 27k ez du inoiz hitanoa erabiltzen, haien herrietan (Oñati, Zarautz, Zaldibia...) hitanoak bizirik dirauen arren. Kontuan izan behar da beste udalerrri euskaldun batzuetan (Ondarroa, Mutriku, Lekeitio, Gernika-Lumo...) hitanoa galduta edo galzorian dagoela.

15. irudia: Hitanoaren erabilera udalerrri euskaldunetan (2023)




Hitanoaren ezagutza-maila neurtzeko, hitano-erabiltzaileak bakarrik hartu dira kontuan, hau da, sarri eta batzuetan erabiltzen dutenak (15. irudia). Horien artean, % 75ek ezagutza-maila ona (oso ona edo nahiko ona, inkestaren aukeretan) duela erantzun du eta % 5ek bakarrik esan du ezagutza'nahiko txarra duela (16. irudia). Hitanoaren ezagutza-maila, beraz, ona dela esan daiteke udalerrri euskaldunetatik erantzun duten hitano-erabiltzaileei dagokienez.

16. irudia: Hitanoaren ezagutza-maila udalerrri euskaldunetan (2023)




Inkesta erantzun dutenen jatorriari erreparatuz gero⁴ (5. mapa), hika sarri hitz egiten dutenak Gipuzkoan eta Ipar Euskal Herrian nabarmentzen dira. Udalerrri euskaldunetan maizago erabiltzen da hitanoa (6. mapa) orokorrean baino.

5 mapa: Hitanoaren erabilera inkestan parte hartutako herri guztien arabera (2023):




6. mapa: Hitanoaren erabilera udalerri euskaldunetan (2023):



Azkoitian eta Amorebieta-Etxanon hitanoa zenbat erabiltzen ote den alderatuz gero, nabaria da bi herrietan guztiz kontrako joera dagoela (17. irudia). Azkoitian hitanoaren erabilera oso zabaldua dago eta % 9k bakarrik dio ez duela inoiz erabiltzen. Amorebieta-Etxanon, aldiz, % 63 dira erabiltzen ez dutenak, Azkoitian sarri erabiltzen dutenen pareko kopurua, alegia.


Alderaketarekin jarraituta, Azkoitik jaso diren erantzun guztietatik % 91k bete du inkestaren bigarren zatia. Hau da, % 91 hitano-erabiltzaileak dira. Amorebieta-Etxanon, ostera, inkesta bete duten herritarren % 37k erabiltzen du hitanoa.

17. irudia: Hitanoaren erabileraren konparaketa Azkoitian eta Amorebieta-Etxanon (2023)



Inkestaren bigarren zatira pasatu direnen artean, hitanoaren ezagutza-maila neurtzeko orduan (18. irudia), bi herrietan antzeko kopuruak jaso dira maila 'nahiko ona' dutela dioten artean (Azkoitian % 46 eta Amorebieta-Etxanon % 39). Baina ezberdintasun nabariak sortzen dira gainontzeko datuetan. Izan ere, Azkoitian % 41ek erantzun du ezagutza-maila oso ona duela eta Amorebieta-Etxanon, aitzitik, % 4k. Gainera, Amorebieta-Etxanon hitanoaren ezagutza-maila 'nahiko ona' eta 'erdipurdikoa' dutela dioten portzentajea bera da (% 39); ezagutza 'nahiko txarra' dutenak, berriz, % 17 dira. Azken datu horretan ere alde nabaria sortzen da Azkoitiarekin konparatuta (Azkoitian % 2).

18. irudia: Hitanoaren ezagutza-mailaren konparaketa Azkoitian eta Amorebieta-Etxanon (2023)




ERABILERA-OHITURAK: ARAUAK ERRESPETATZEN DIREN

Hitanoa erabilera-ohitura edo "arau" batzuei lotuta doa tradizioz. "Arau" horietako baten arabera, helduagoei ezin zaie hika hitz egin. Lagunartean edo anai-arreben artean, ordea, ohikoa zen garai batean. Hitanoa elkarren artean konfiantza dutenen artean erabiltzeko hizketa denez, bi lagunek elkarrekin hika egin dezakete, adinez ezberdintasun nabaria izan arren. Aldiz, badira adin bereko pertsonak elkarri inoiz hika egingo ez lioketenak.

Inkestan, oinarritzko arauak errespetatzen ote diren jakiteaz gain, erabiltzaileen iritzia ere jaso nahi izan da arau horien inguruan. Udalerrri euskaldunen kasuan, % 61ek erantzun du arauak errespetatzen dituela eta beste % 26k pertsonaren arabera egiten duela, eta beste pertsonarekin adostuta (adibidez, baimena eskatuta aitona-amonei, gurasoei, osaba-izebei...). Arauak errespetatzen ez dituztenak % 13 dira.

20. irudia: Hitanoaren ohiturazko arauak errespetatzeko joera udalerri euskaldunetan (2023)



Arau horiei buruz galdetzean, asko izan dira arauak errespetatu arren horiekin ados ez daudela erantzun dutenak; batzuek hitanoaren galera errespetuzko arau tradizionalekin lotzen dute:

- *Gutxiegia erabiltzen da eta arauak jarraitzeak asko murrizten du erabilera aukera (Tolosa)*
- *Araua jarraitzen dut, baina ez nago ados (Usurbil)*
- *Errespetatzen dut eta horregatik ari da galtzen (Legorreta)*
- *Semeak niri hika, bestela ez du praktikatuko, Ondarroan ez da egiten eta (Ondarroa)*
- *Errespetatzen ditut. Baina ez zait arau egokia iruditzen. Egoera ikusirik... (Arama)*
- *Nahi gabe gehiegi. Aldatu beharra dago transmisioa bermatzeko (Azpeitia)*
- *Hitanoka berpiztea garrantzitsua da. Euskal mundua, horizontala senditzen dut. Denak ber heineko gira. Gure gizartea maila bakarreko hierakikoa da. Ni, Gu-aren parte bat den bezala, Gu izentatzean, ber heineko gizartekoak Gu hortan sartzen ditugu. Nola sar nintzake Gu hortan, Ni beno gorago liratekean batzuk? (Gotaine)*
- *Emazterei egiten dugun Zu hori, emazten hurruntzeko edo baztertzekeo manera bat baizik ez da (Gotaine)*

ONDORIOAK


Orokorrak

- 4.215 erantzun jaso dira, inoiz hitanoaren egoera eta erabilerari buruz egindako datu-bilketa handiena.
- Euskal Herriko 287 herritako erantzunak jaso dira, zazpi probintzietakoak. Gipuzkoan 88 herritakoak, Bizkaian 87, Nafarroan 70, Iparraldean 39 eta Araban 3.
- Erantzun gehien Gipuzkoan jaso dira, 3.000tik gora (% 73,8). Gipuzkoako ia herri guztietatik jaso dira erantzunak.
- Inkesta bete dutenen % 63,4k hitanoa erabiltzen du.
- Jasotako emaitzekin herri batzuetako azterketa sakonagoa egin daiteke, erantzun asko jaso direlako (Azkoitia, Arrasate, Zarautz, Eibar...).

Udalerri euskaldunei begira

- UEMAk euskaldun bezala sailkatutako Hego Euskal Herriko 164 udalerrietako 138tatik erantzunak jaso dira. Udalerri euskaldunen % 84tik gutxienez erantzun bat jaso da.
- Gaindegiaren zerrendaren arabera, 188 dira Euskal Herriko herri euskaldunak eta horietako 142tatik jaso dira erantzunak (% 75,5). Erantzuna jasotako herri guztiak kontuan hartuta, % 47,4 dira herri euskaldunak.
- Udalerri euskaldunetatik erantzun dutenen artean % 74k erabiltzen du hitanoa. Euskal Herri osoko datuak kontuan hartuta, berriz, erantzun dutenen % 63,6 dira hitano-erabiltzaileak.
- Udalerri euskaldunetan hitanoaren egoeraren pertzepzioa hobea da Euskal Herri osoa kontuan hartuta baino. Udalerri euskaldunetatik erantzun dutenen artean hitanoaren egoeraren pertzepzio nahiko ona du % 64k: ona % 17k + erdipurdikoa % 46,5ek (bereziki mutilen artean egoera ona duela diotenak). 'Arnasgune' diren herrietan, berriz, % 75ek du hitanoaren egoeraren inguruko pertzepzio nahiko ona. Euskal Herri mailan, gehiengoak egoera eskasa edo txarra dela dio: nahiko ona dela diotenak % 44,4 dira (ona % 11, erdipurdikoa % 33,4).
- Hitanoaren egoera ona dela diotenak 11 herritakoak dira; erantzunak 287 herritatik jaso direla kontuan hartuta, % 3,8 besterik ez (ikus 34. orrialdeko taula).
- Hitanoaren egoera ona edo nahiko ona dela diotenak udalerri euskaldunetan: Gipuzkoako 48 herri (ona 8 eta erdipurdikoa 40), Bizkaiko 10 eta Nafarroako 9.

- Tokaren eta nokaren egoerak guztiz ezberdinak dira. Nokaren egoera tokarena baino askoz okerragoa da. Nokaren egoera ona dela uste dutenak % 7 dira; tokarena ona dela diotenak, oster, % 37. Tokaren egoera nahiko ona dela uste dutenak % 69 dira ('ona' eta 'erdipurdikoa' erantzunak batuta), ia nokaren egoera txarra dela diotenak beste: % 64 ('eskasa' eta 'galzorian' erantzunak batuta). Tokaren kasuan askoz gutxiago dira egoera txarrean ikusten dutenak: % 32.
- Udalerrri euskaldunetan ia inork ez du toka galdutzat ematen. Alabaina, % 9k uste du noka galduta dagoela.
- Hitanoaren transmisioa etxean eta kalean ematen da ia % 100ean.
- Hitanoak fama ona du oro har (% 80), baina udalerri euskaldunetako % 19k uste du gizonezkoen artean hobeto ikusia dagoela.
- Hitanoaren kontrako iruzkin negatibo gehiago entzuten dira udalerri euskaldunetan orokorrean baino. Kritika nagusia errespetuzko hizkera ez izatearena da (% 68).
- Udalerrri euskaldunetako % 18k noizbait entzun du hitanoa ez dela emakumeentzat hizkera fina.
- Erantzunak jaso diren herri guztien artetik 111 herritan (% 38,6) antolatzen da hitanoa berreskuratzeko ekintzaren bat (Hikaldia, Hikalaguna, ikastaroak, materiala...): Gipuzkoako 57 herritan, Bizkaiko 33tan eta Nafarroako 19tan. Nabarmentzekoa da herri horietatik % 70 udalerri euskaldunak direla.
- Hitanoa biziberritzeko hainbat ekimen egiten dira herri askotan, baina batzuetan jendeak ez ditu ezagutzen. Gaiari buruzko ezjakintasun handia dago (% 75).
- Udalerrri euskaldunetan, hitanoa erabiltzen dutenen artean, % 75ek uste du ezagutza 'nahiko ona' duela.
- Hitanoaren arau orokorrak (helduagoei ez egitea, adibidez) errespetatu arren (% 61ek), hitanoaren galeraren arrazoietakoa bat arau horiek direla uste du askok.




*EuskalGeo (Gaindegia) ataritik lortutako datu geografiko espazioalena arabera

Udalerri euskaldunen zerrenda (UEMAren arabera)					
ARABA	GIPUZKOA		BIZKAIA		NAFARROA
Aramaio	Abaltzisketa	Hernani	Ajangiz	Ibarrangelu	Araitz
	Aduna	Hernalde	Amoroto	Igorre	Arano
	Aia	Hondarribia	Arantzazu	Ispaster	Arantza
	Aizarnazabal	Ibarra	Areatza	Izurtza	Arbizu
	Albiztur	Idiazabal	Arrankudiaga-Zollo	Kortezubi	Areso
	Alegia	Ikaztegieta	Arratzu	Larrabetzu	Arruazu
	Alkiza	Irura	Arrieta	Lekeitio	Basaburua
	Altzaga	Itsasondo	Artea	Lezama	Baztan
	Altzo	Larraul	Atxondo	Mallabia	Beintza Labaien
	Amezketza	Lazkao	Aulesti	Mañaria	Bera
	Anoeta	Leaburu	Bakio	Markina-Xemein	Bertizarana
	Antzuola	Legorreta	Bermeo	Maruri-Jatabe	Betelu
	Arama	Leintz-Gatzaga	Berriatua	Meñaka	Donamaria
	Aretxabaleta	Lezo	Busturia	Mendata	Doneztebe
	Asteasu	Lizartza	Dima	Mendexa	Elgorriaga
	Astigarraga	Mendaro	Ea	Mundaka	Ergoiena
	Ataun	Mutiloa	Elantxobe	Munitibar	Etxalar
	Azkoitia	Mutriku	Ereño	Murueta	Etxarri-Aranatz
	Azpeitia	Oiartzun	Errigoiti	Muxika	Ezkurra
	Baliarrain	Oñati	Etxebarria	Nabarniz	Goizueta
	Beizama	Orendain	Forua	Ondarroa	Igantzi
	Belauntza	Orexa	Fruiz	Orozko	Imotz
	Berastegi	Orio	Gamiz-Fika	Otxandio	Ituren
	Bergara	Ormaiztegi	Garai	Sukarrieta	Larraun
	Berrobi	Segura	Gatika	Ubide	Leitza
	Bidania-Goiatz	Tolosa	Gautegiz Arteaga	Zeanuri	Lekunberri
	Deba	Urretxu	Gernika-Lumo	Zeberio	Lesaka
	Elduain	Usurbil	Gizaburuaga	Ziortza-Bolibar	Oiz
	Elgeta	Villabona			Saldias
	Eratsun	Zaldibia			Sunbilla
	Errezil	Zarautz			Urdazubi
	Ezkio-Itsaso	Zegama			Urdiain
	Gabiria	Zerain			Zubietza
	Gaintza	Zestoa			Zugarramurdi
	Gaztelu	Zizurkil			
	Getaria	Zumaia			

Udalerri euskaldunen zerrenda (GAINDEGIaren arabera)								
ARABA	GIPUZKOA		BIZKAIA		NAFARROA	NAFARROA BEHEREA	ZUBEROA	LAPURDI
Aramaio	Abaltzisketa	Getaria	Ajangiz	Ibarrangelu	Arano	Ainhize-Monjolose	Altzai-Altzabeheti-	
	Aduna	Hernalde	Amoroto	Igorre	Arantza	Aintzila	Zunharreta	
	Aia	Hondarribia	Arantzazu	Ispaster	Arbizu	Arhantsusi	Arrokiaga	
	Aizarnazabal	Ibarra	Areatza	Izurtza	Areso	Behorlegi	Atharratze-	
	Albiztur	Idiazabal	Arratzu	Kortezubi	Arruazu	Buztintze-Hiriberri	Sorholuze	
	Alegia	Ikaztegieta	Arrieta	Larrabetzu	Basaburua	Duzunaritze-Sarasketa	Barkoxe	
	Alkiza	Irura	Arteaga	Lekeitio	Baztan	Eiheralarre	Bunuze	
	Altzaga	Itsasondo	Atxondo	Lemoiz	Beintza Labaien	Ezterenzubi	Larraine	
	Altzo	Larraul	Aulesti	Lezama	Bera	Hozta	Mendikota	
	Amezketza	Lazkao	Bermeo	Mallabia	Bertizarana	Ibarrola	Muskildi	
	Anoeta	Leaburu	Berriatua	Mañaria	Betelu	Izpura	Urdatx	
	Antzuola	Legorreta	Busturia	Markina-Xemein	Donamaria	Jatsu		
	Arama	Leintz-Gatzaga	Dima	Maruri-Jatabe	Donazarre	Lakarra		
	Aretxabaleta	Lizartza	Ea	Mendata	Doneztebe	Landibarre		
	Asteasu	Mendaro	Elantxobe	Mendexa	Elgorriaga	Larabale-Arroze-Zibitze		
	Astigarraga	Mutiloa	Elorrio	Meñaka	Ergoiena	Zaro		
	Ataun	Mutriku	Ereño	Mundaka	Etxalar			
	Azkoitia	Oiartzun	Errigoiti	Munitibar	Etxarri-Aranatz			
	Azpeitia	Oñati	Etxebarria	Murueta	Ezkurra			
	Baliarrain	Orendain	Forua	Muxika	Goizueta			
	Beizama	Orexa	Fruiz	Nabarniz	Ituren			
	Belauntza	Orio	Gamiz-Fika	Ondarroa	Larraun			
	Berastegi	Ormaiztegi	Garai	Orozko	Leitza			
	Bergara	Segura	Gatika	Otxandio	Lekunberri			
	Berrobi	Tolosa	Gautegiz Arteaga	Sukarrieta	Lesaka			
	Bidania-Goiatz	Usurbil	Gernika-Lumo	Ubide	Luzaide			
	Deba	Villabona-Amasa	Gizaburuaga	Zeanuri	Oiz			
	Elduain	Zaldibia		Zeberio	Saldias			
	Elgeta	Zarautz		Ziortza-Bolibar	Sunbilla			
	Eratsun	Zegama			Uharte Garazi			
	Errezil	Zerain			Urdazubi			
	Ezkio-Itsaso	Zestoa			Urdiain			
	Gabiria	Zizurkil			Urroz			
	Gaintza	Zumaia			Zubieta			
	Gaztelu				Zugarramurdi			


ERANSKINA II

Herri euskaldunen parte-hartzea inkestan:



ERANSKINA III

Hitanoaren egoeraren pertzepzioa, inkesta erantzun duten herrietan:



Zein herritan uste dute hitanoaren egoera ONA dela herrian?


ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	NAFARROA	NAFARROA BEHEREA	ZUBEROA	LAPURDI
	Aizarnazabal Alkiza Azpeitia Beizama Elduain Errezil Hernialde Orexa	Garai	Arano	Azkarate		

Zein herritan uste dute hitanoaren egoera ERDIPURDIKOA dela herrian?

ARABA	GIPUZKOA			BIZKAIA	NAFARROA	NAFARROA BEHEREA	ZUBEROA	LAPURDI
	Abaltzisketa	Berrobi	Orio	Atxondo	Arantza	Baigorri	Gotaine-Irabarne	Angelu
	Aduna	Berastegi	Ormaiztegi	Aulesti	Arbizu	Behauze	Lexantzü-Zunharre	Hazparne
	Aia	Ezkio-Itsaso	Segura	Dima	Areso	Donapaleu	Maule-Lextarre	Itsasu
	Albiztur	Gabiria	Usurbil	Etxebarria	Etxalar	Donibane Garazi	Ozaze-Zühara	Larresoro
	Alegia	Getaria	Villabona-Amasa	Forua	Goizueta	Gamarte		Luhuso
	Altzo	Idiazabal	Zaldibia	Mallabia	Ituren	Garrüze		suhuskune
	Amezketta	Irura	Zarautz	Olaberria	Leitza	Larزابale		
	Anoeta	Larraul	Zegama	Otxandio	Sunbilla	Ortzaize		
	Antzuola	Lazkao	Zerain	Zeanuri	Urrotz			
	Arama	Leaburu	Zestoa					
	Asteasu	Lizartza	Zizurkil					
	Ataun	Oiartzun	Zumaia					
	Azkoitia	Oñati						
	Baliarrain	Orendain						

ERANSKINA IV

Hitanoaren egoeraren pertzepzioa, inkesta erantzun duten herri euskaldunetan:



Zein herri euskaldunetakoek uste dute hitanoaren egoera ONA dela herrian?


ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	NAFARROA	NAFARROA BEHEREA	ZUBEROA	LAPURDI
	Aizarnazabal Alkiza Azpeitia Beizama Elduain Errezil Hernialde Orexa	Garai	Arano			

Zein herri euskaldunetakoek uste dute hitanoaren egoera ERDIPURDIKOA dela herrian?

ARABA	GIPUZKOA			BIZKAIA	NAFARROA	NAFARROA BEHEREA	ZUBEROA	LAPURDI
	Abaltzisketa Aduna Aia Albztur Alegia Altzo Amezket Anoeta Antzuola Arama Asteasu Ataun Azkoitia Baliarrain	Berastegi Berrobi Ezkio- Itsaso Gabiria Getaria Idiazabal Irura Larraul Lazkao Leaburu Lizartza Oizartzun Oñati	Orendain Orio Segura Usurbil Villabona-Amasa Zaldibia Zarautz Zegama Zerain Zestoa Zizurkil Zumaia	Atxondo Aulesti Dima Etxebarria Forua Mallabia Otxandio Zeanuri	Arantza Arbizu Areso Etxalar Goizueta Igantzi Ituren Leitza Sunbilla Urrotz			


ERANSKINA V

Hitanoaren erabilera, inkesta erantzun duten herrietan:



ERANSKINA VI

Hitanoaren erabilera, inkesta erantzun duten herri euskaldunetan:



Ze herri euskaldunetakoek erantzun dute hitanoa SARRI erabiltzen dutela?						
ARABA	GIPUZKOA		BIZKAIA	NAFARROA	NAFARROA BEHEREA	ZUBEROA
	Aia	Bidania-Goiatz	Artea	Goizueta	Ainhize-Monjolose	
	Aizarnazabal	Errezil	Mallabia		Eiherelarre	
	Albiztur	Ezkio-Itsaso	Ziortza-Bolibar		Larزابale-Arroze-Zibitze	
	Alegia	Gabiria				
	Altzo	Getaria				
	Amezketta	Ibarra				
	Anoeta	Idiazabal				
	Antzuola	Lizartza				
	Arama	Orendain				
	Asteasu	Segura				
	Ataun	Usurbil				
	Azkoitia	Zaldibia				
	Azpeitia	Zarautz				
	Baliarrain	Zerain				
	Beizama	Zumaia				
	Berrobi					

